

# Lehiaketaren oinarriak

*300 hitzek irdu bat balio dute!*

- 1** Donapean 2021-2022 kurtsoan matrikulatuta dauden ikasle guztiek parte har dezakete lehiaketan.
- 2** Lanak originalak eta argitaratu gabeak behar dute izan, eta ikastetxean irakasten den dozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahalko dira: gaztelera, euskara eta ingelesa.
- 3** Lanek harreman zuzena izan beharko dute oinarri hauetan aurkezten diren irudiekin. Testuen literatur-kalitatea sarituko da eta baita testuek irudiekin daukaten harremana. Irudiekin harremana ez daukaten lanak ez dira sarituko, nahiz eta kalitatezkoak izan. Aldi berean, ez dira kopiatutako lanak edo itzultzaileekin sortutako testuak onartuko.
- 4** Lanek ez dute 300 hitz baino gehiagoko luzera izan eta eta 12 tamainako Times New Roman letra motan aurkeztuko dira, espazio bikoitzarekin edo eskuz ere bai, baldin eta testua ulergarria bada.
- 5** Parte hartzaile bakoitzak lan bat aurkeztu ahalko du espezialitate bakoitzeko.
- 6** Lanak izengoiti batekin sinatuta agertuko dira. Halaber, parte hartzaileak beste dokumentu bat entregatu beharko du bere izenarekin, kontakturako telefonoarekin, bere lana sinatu duen izengoitiarekin, eta bere lanaren izenburuarekin, baldin eta titulu bat baldin badu.
- 7** Lanak Ingelesa- Anitzak Departamentuan entregatuko dira (beheko solairua, A eraikina) abenduaren 15 eta abenduaren 22 tartean
- 8** Honako sari hauek banatuko dira: -Hizkuntza bakoitzeko, 20 euroko saria kafetegian gastatu ahal izateko eta bigarren sari bat 10 eurokoa.
- 9** Epaimahaia, dagokien hizkuntza departamentuetako ikasleek osatuta dago, eta narrazioen kalitatea baloratuko du. Hizkuntza bakoitzeko lana baloratuko dute. Epaimahaien erabakia behin betikoa izango da. Sariak hutsik gelditu daitezke.
- 10** Partehartzaileek, nahi izanez gero, beren originalak berreskuratu ahalko dituzte saria banatu ondoren.
- 11** Irabazleei saridunak direla komunikatuko zaie sari-banaketa egin baino lehen. Sari banaketa urtarrilean izango da.
- 12** Lehiaketara lanak entregatzeak oinarri guztiak onartzea inplikutzen du. Oinarriak betetzen ez dituzten lanak lehiaketatik kanpo gera daitezke.